ORREAGAKO AMA IP GARRALDA DBHI	**"ORREAGAKO AMA IKASTETXEA"**	**2026/2027**

Lehen Hezkuntza 2. maila

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK
1. Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia. 2. Eleaniztasunerako konpetentzia. 3. Matematika konpetentzia, eta zientzia, teknologia eta ingeniaritza konpetentzia. 4. Konpetentzia digitala. 5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. 6. Herritar konpetentzia. 7. Ekimenerako konpetentzia. 8. Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako konpetentzia.

EUSKERA	Asteko saioak: 6

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
1. Munduko hizkuntza aniztasuna ezagutzea, abiapuntu hartuta ikasleek hitz egiten dituzten hizkuntzen eta Espainiako errealitate eleaniztun eta kulturaniztunaren aitortza, hizkuntzen arteko hausnarketa bultzatzeko, hizkuntzaren gaineko estereotipoak eta aurreiritziak identifikatu eta baztertzeko, eta aniztasun hori kultura-aberastasunaren iturri gisa baloratzeko. 2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea; zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuena identifikatzea, eta, lagunduta, alderdi formalak eta oinarrizko edukiak baloratzea, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio beharrei erantzuteko. 3. Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adierazteko; ezagutza eraikitzeko; lotura pertsonalak ezartzeko; eta askotariko ahozko interakzioetan autonomiaz eta elkarlanerako jarreraz eta jarrera enpatikoaz parte hartzeko. 4. Testu idatziak eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea; zentzu orokorra, ideia nagusiak eta informazio esplizitua eta inplizitua atzematea eta, lagunduta, alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarrizko hausnarketak egitea, ezagutza eskuratu eta eraikitzeko eta askotariko komunikazio beharrei eta interesei erantzuteko. 5. Testu idatzi eta multimodalak sortzea, oinarrizko zuzentasun gramatikala eta ortografikoa dutenak, edukiak behar bezala sekuentziatuta, eta planifikatzeko, testualizatzeko, berrikusteko eta editatzeko oinarrizko estrategiak aplikatuta, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio eskaera zehatzei erantzuteko. 6. Bi iturritatik edo gehiagotatik datorren informazioa modu planifikatuan eta behar bezalako laguntzarekin bilatzea, hautatzea eta kontrastatzea, haren fidagarritasuna ebaluatzea eta manipulazio eta desinformaziorako arrisku batzuk antzematea, ezagutza bihurtzeko eta modu sortzailean komunikatzeko, ikuspegi pertsonala eta jabetza intelektualarekiko errespetuzkoa hartuta. 7. Modu autonomoan irakurtzea beren gustuen eta interesen arabera hautatutako hainbat lan, eta irakurketa esperientziak partekatzea, irakurle nortasuna eraikitzen hasteko, irakurzaletasuna sustatzeko plazeraren iturri gisa eta horren dimentsio sozialaz gozatzeko. 8. Ikasleen garapen-mailarako egokiak diren literatura lanak edo pasarteak irakaslearen laguntzaz irakurri, interpretatu eta aztertzea, haien arteko erlazioak ezarriz eta literatura generoa eta haren funtsezko konbentzioak identifikatuz, literatura arte-adierazpen gisa hartzen hasteko, bai eta plazer, ezagutza eta literatura asmoko testuak sortzeko inspirazio iturri gisa ere. 9. Hizkuntzari buruz hausnartzea, gidatuta, testuinguru esanguratsuetan testuak sortzeko eta ulertzeko prozesuetatik abiatuta, oinarrizko terminologia egokia erabiliz hizkuntza kontzientzia garatzen hasteko eta ahozko eta idatzizko ulermena eta sorkuntza abileziak hobetzeko. 10. Norberaren komunikazio praktikak elkarbizitza demokratikoaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta hitzaren bidezko botere abusuak hautemanez eta arbuiatuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa ere errazteko.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. ebaluazioa	**2. ebaluazioa**	**3. ebaluazioa**
Irakurketa mekanikoa. **Idazmena:** - Larriz eta xehez idatzi letra guztiak. - Hitzen banaketa esaldian. - Deskribapena -Gutuna **Ulermena:** - Ulermen globala. - Esaldi sinpleak. - Testu laburrak. - Ideia nagusiak. - Ulermen estrategiak. **Ahozkotasuna:** - Gertaera kronologikoak. - Esaldien egituraketa. - Denboralizaioa. - Adierazpena eta ahoskera. **Hizkuntza formala:** - Hiztegi zehatza/lexikoa: denbora antolatzaileak. Adjektiboak. - Puntuazio markak. - Aditza eta deklinabidea. - Arau ortografikoak. - Perpausen egitura.	**Irakurketa mekanikoa.** **Idazmena:** **-** Larriz eta xehez idatzi letra guztiak. - Ipuina. - Irakurketa fitxa. - Postala / Txartela **Ulermena:** - Ulermen globala. - Esaldi sinpleak. - Testu laburrak. - Ideia nagusiak. - Ulermen estrategiak. **Ahozkotasuna:** - Gertaera kronologikoak. - Esaldien egituraketa. - Denboralizaioa. - Adierazpena eta ahoskera. **Hizkuntza formala:** - Hiztegi zehatza/lexikoa. - Puntuazio markak: puntua eta koma - Aditza eta deklinabidea. - Arau ortografikoak: letra larria noiz erabili. - Perpausen egitura.	**Irakurketa mekanikoa.** **Idazmena:** - Larriz eta xehez idatz letra guztiak. - Errezeta. - Albistea. - Jarraibideak. **Ulermena:** - Ulermen globala. - Esaldi sinpleak. - Testu laburrak. - Ideia nagusiak. - Ulermen estrategiak. **Ahozkotasuna:** - Gertaera kronologikoak. - Esaldien egituraketa. - Denboralizaioa. - Adierazpena eta ahoskera. **Hizkuntza formala:** - Hiztegi zehatza/lexikoa. - Puntuazio markak. - Aditza eta deklinabidea. - Arau ortografikoak. - Perpausen egitura.

EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK		
LANA	Gelan eta taldean egindakoa Bakarkako lana	% 30
EDUKIAK	Azterketa/ariketen bidez erakusten duena Eguneroko lanaren balorazioa	% 50
JARRERA	Besteekiko Lanarekiko	% 20

MATEMATIKA	Asteko saioak: 6

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
1. Eguneroko bizitzako egoerak interpretatzea, eta horien irudikapen matematikoa egitea, kontzeptuen, tresnen eta estrategien bitartez, informaziorik garrantzitsuena aztertzeko. 2. Egoera problematizatuak ebaztea, eta, horretarako, zenbait teknika, estrategia eta arrazoitzeko modu aplikatzea, jokatzeko hainbat modu aztertzeko, soluzioak lortzeko eta ikuspuntu formaletik eta planteatutako testuinguruari dagokionez baliozkoak direla ziurtatzeko. 3. Aieru edo uste errazak esploratzea, formulatzea eta egiaztatzea, edo problema matematikoak planteatzea eguneroko bizitzan oinarritutako egoeretan, gidatuta, eta arrazoitzearen eta argudioen balioa aintzat hartuta, haien baliozkotasuna egiaztatzeko eta ezagutza berria bereganatu eta integratzeko. 4. Pentsamendu konputazionala erabiltzea, datuak antolatuz, zatitan deskonposatuz, patroiei antzemanez, orokortuz eta algoritmoak interpretatuz, aldatuz eta sortuz, gidatuta. Hori guztia, eguneroko bizitzako egoerak modelizatzeko eta automatizatzeko. 5. Ideia matematikoen arteko loturak ezagutzea eta erabiltzea, bai eta beste arlo batzuetan edo eguneroko bizitzan inplikatutako matematika identifikatzea ere, kontzeptuak eta prozedurak elkarri lotuz; hori guztia, askotariko egoera eta testuinguruak interpretatzeko. 6. Matematikako kontzeptuak, prozedurak eta emaitzak bakarka eta taldeka komunikatu eta irudikatzea, horretarako erabiliz ahozko hizkuntza, idatzizkoa, grafikoa, multimodala eta terminologia egokia, ideia matematikoei esanahia eta iraunkortasuna emateko. 7. Erronka matematikoei aurre egitean emozioak identifikatzen eta kudeatzen lagunduko duten abilezia pertsonalak garatzea, konfiantza sustatuz norberaren aukeretan, akatsa ikaskuntza prozesuaren zati dela onartuz eta ziurgabetasun egoeretara egokituz; hori guztia, pertseberantzia hobetzeko eta matematika ikasten gozatzeko. 8. Gizarte abileziak garatzea, eta, horretarako, besteen emozioak eta esperientziak eta aniztasunaren balioa ezagutzea eta errespetatzea, eta esleitutako rolak dituzten lantalde heterogeneoetan aktiboki parte hartzea, matematikako ikasle gisa nortasun positiboa eraikitzeko, norberaren ongizatea sustatzeko eta harreman osasungarriak sortzeko.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. ebaluazioa	**2. ebaluazioa**	**3. ebaluazioa**
- Zenbakiak 100rarte. - Batuketak bururakoarekin eta kenketak - Neurriak: denbora. - Espazioa eta orientazioa. - Buruzko kalkulua. - Problemak eta erronkak.	- Zenbakiak 999ra. - Hurbildu ehunekoetara - Batuketak eta kenketak bururakoekin. -Batuketaren trukatze-elkartze propietatea - Kenketaren froga - Geometria - Buruzko kalkulua. - Problemak eta erronkak.	- Bakoitiak eta bikoitiak. - Biderkaketa eta zatiketaren hastapena. -Banaketa: kopuru baten erdia. - Neurriak: luzera, masa, edukiera eta dirua. - Estatistika eta probabilitatea. - Buruzko kalkulua. - Problemak eta erronkak.

EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK		
LANA	Gelan eta taldean egindakoa Bakarkako lana	% 30
EDUKIAK	Azterketa/ariketen bidez erakusten duena Eguneroko lanaren balorazioa	% 50

JARREKA	Besteekiko Lanarekiko	% 20

INGURUNE NATURALAREN, SOZIALAREN ETA KULTURALAREN EZAGUTZA	Asteko saioak: 4

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
1. Gailu eta baliabide digitalak modu seguruan, arduratsuan eta efizientean erabiltzea, informazioa bilatzeko, komunikatzeko eta bakarka, taldean eta sarean lan egiteko, eta hezkuntza-testuinguruaren premia digitalen arabera eduki digitala berregin eta sortzeko. 2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoari dagozkion teknikak, tresnak eta ereduak erabiliz, ingurune natural, sozial eta kulturalean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko. 3. Arazoak konpontzea diseinu-proiektuak eta pentsamendu konputazionala aplikatuz, behar zehatzei erantzunen dien sormenezko produktu berritzaile bat lankidetzan sortzeko. 4. Norberaren gorputza ezagutzea eta haren kontzientzia hartzea, baita norberaren eta besteen emozio eta sentimenduena ere, eta ezagutza zientifikoa aplikatzea, ohitura osasungarriak garatzeko eta ongizate fisikoa, emozionala eta soziala lortzeko. 5. Ingurune natural, sozial eta kulturaleko elementuen edo sistemen ezaugarriak identifikatzea, haien antolaketa eta propietateak aztertzea eta haien artean erlazioak ezartzea, ondare natural eta kulturalaren balioa ezagutzeko eta hura kontserbatu, hobetu eta erantzukizunez erabiltzeko ekintzak gauzatzeko 6. Gizakiak ingurunean esku hartzearen kausak eta ondorioak identifikatzea, ikuspegi sozialetik, ekonomikotik, kulturaletik, teknologikotik eta ingurumenekotik, batetik, arazoei aurre egiteko, irtenbideak bilatzeko eta, horiek konpontzeko, bakarka nahiz lankidetzan aritzeko gaitasuna hobetzeko, eta, bestetik, bizimodu jasangarriak praktikan jartzeko, pertsonak eta planeta errespetatu, zaindu eta babestearekin bat datozenak. 7. Ingurune sozial eta kulturalean irauten duena eta aldatzen dena behatzea, ulertzea eta interpretatzea, eta kausalitate-, aldiberekotasun- eta segida-erlazioak aztertzea, elementuen eta gertaeren arteko erlazioak azaltzeko eta baloratzeko. 8. Genero-aniztasuna eta -berdintasuna ezagutzea eta baloratzea, enpatia eta beste kultura batzuekiko errespetua agertzea eta gai etikoei buruz hausnartzea, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate indibiduala eta kolektiboaren alde eta Europaren batasun balioak lortzen laguntzeko. 9. Ingurunean eta gizarte bizitzan eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzea, balio demokratikoak, giza eskubideak eta haurren eskubideak, Espainiako Konstituzioaren eta Europar Batasunaren printzipioak eta balioak errespetatuz, bai eta Estatuak eta haren erakundeek bakeari eta herritarren segurtasun integralari eusteko betetzen duten eginkizuna baloratzea ere, errespetuzko eta ekitatezko interakzioak sortzeko eta gatazkak bake eta elkarrizketaren bidez konpontzea sustatzeko.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. ebaluazioa	**2. ebaluazioa**	**3. ebaluazioa**
GIZA GORPUTZA Bizidunak-Bizigabeak Giza gorputza kanpotik: *Atalak: burua, enborra eta gorputz adarrak. *Zentzumenak Giza gorputza barnetik: *Hezurdura *Giharrak	**HISTORIA** **GREZIA** Kokapena Non bizi ziren aintzinako greziarrak Nola antolatzen zuten beren bizitza Greziako haurren bizitza Zer egiten zuten aisialdian * Olinpiadak	**ZIENTZIA** **URA** Uraren presentzia: non ikusten dugu? Uraren ezaugarriak: zentzumenekin jolasten. Uraren egoerak: likido, solido eta gasa. Airean dauden ur partikulak.

*Organoak Bizi funtzioak: elikadura, ugalketa eta harremana. (1.mailan definitu eta 2.mailan piskat gehiago azaldu). Elikadura: elikagaiak eta ohitura osasungarriak. **PROIEKTUA** Gure gorputza irudikatzen **HISTORIA** **ERROMA** Kokapena. Erromatar inperioa. Beraien bizitza: -Non bizi ziren. -Zer jaten zuten. -Nola janzten ziren. -Salerosketak. Eraikinak/Arkitektura. Zer egiten zuten aisialdian. Erromatar garaiko hiriak eta bideak gure inguruan. **PROIEKTUA** Inguru erromanikoa (Iturissa).	* Artelanak Kondairak **PROIEKTUA :** antzezlana **GEOGRAFIA** Herria - Plano eta mapen interpretazioa. - Herria - Etxea - Herria eta Hiria - Kalea - Zerbitzuak - Eraikinak - Bide segurtasuna - Zonaldea: Herri, mendi eta ibai nagusiak.	**PROIEKTUA** Gu zientzialariak. Esperimentuak erregistratu. **ARGIA/SOINUA/MAGNETISMOA????**

KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK		
LANA	Gelan eta taldean egindakoa Bakarkako lana	% 30
EDUKIAK	Azterketa/ariketen bidez erakusten duena Eguneroko lanaren balorazioa	% 50
JARRERA	Besteekiko Lanarekiko	% 20

HEZKUNTZA ARRETA	Asteko saioak: 1

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
1. Norberari eta inguruneari buruzko arazo etikoei buruz eztabaidatzea eta argudiatzea, informazio fidagarria bilatuz eta aztertuz eta horri buruzko gogoetarako jarrera sortuz; hori guztia, autoezagutza eta autonomia morala sustatzeko. 2. Arau eta balio zibiko eta etikoen arabera jardutea eta elkarri eragitea, bizitza indibidual eta kolektiborako duten garrantzia aitortuz eta modu eraginkor eta arrazoituan aplikatuz

hainbat testuingurutan, elkarbizitza demokratikoa, bidezkoa, inklusiboa, errespetuzkoa eta baketsua sustatzeko.

3. Norbanakoaren, gizartearen eta naturaren artean dauden harreman sistemikoak ulertzea, arazo ekosozialak ezagututa eta haiei buruz hausnartuta, helburu izanik modu aktiboan konprometitzea pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin bat datozen balio eta jardunbideekin.

4. Autoestimua eta ingurunearekiko enpatia garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatuz, kudeatuz eta adieraziz eta besteenak aitortuz eta baloratuz; hori guztia, norberaren, besteen eta naturaren gaineko zaintzan eta estimuan oinarritutako jarrera bat hartzeko.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. ebaluazioa	**2. ebaluazioa**	**3. ebaluazioa**
Ikasleen arteko harremanak sustatzeko jarduerak: Hezkuntza emozionala. Hezkidetza: SKOLAE. Talde dinamikak: LAGUNTZA PROGRAMA. Tutoretza: gelako bilerak.	**Ikasleen arteko harremanak** sustatzeko jarduerak: Hezkuntza emozionala. Hezkidetza: SKOLAE. Talde dinamikak: LAGUNTZA PROGRAMA. Tutoretza: gelako bilerak.	**Ikasleen arteko harremanak** sustatzeko jarduerak: Hezkuntza emozionala. Hezkidetza: SKOLAE. Talde dinamikak: LAGUNTZA PROGRAMA. Tutoretza: gelako bilerak.

EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK		
LANA	Gelan eta taldean egindakoa Bakarkako lana	% 30
EDUKIAK	Azterketa/ariketen bidez erakusten duena Eguneroko lanaren balorazioa	% 50
JARRERA	Besteekiko Lanarekiko	% 20

PLASTIKA	Asteko saioak: 2

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
1. Hartze aktiboaren bidez, hainbat genero, estilo, garai eta kulturatako proposamen artistikoak ezagutzea, jakin-mina eta aniztasunarekiko errespetua garatzeko. 2. Ikertzea adierazpen kultural eta artistikoei eta haien testuinguruei buruz, eta, horretarako, hainbat kanal, bitarteko eta teknika erabiltzea, haietaz gozatzeko, haien balioa ulertzeko eta norberaren sentsibilitate artistikoa garatzen hasteko.

3. Ideiak, sentimenduak eta emozioak modu sortzailean adieraztea eta komunikatzea, eta soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta baliabide digitalen aukerekin esperimentatzea nork bere obrak sortzeko.
4. Bakarkako nahiz taldeko ekoizpen kulturalak eta artistikoak diseinatzen, prestatzen eta zabaltzen laguntzea, eta, hori egitean, prozesuaren balioa nabarmentzea eta zenbait eginkizun beren gain hartzea azken emaitza lortzeko, garatzeko bai sormena bai egiletzaren kontzeptua, baita taldeko kide izatearen sentipena ere.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. ebaluazioa	**2. ebaluazioa**	**3. ebaluazioa**
Marrazketa: Marrazki librea: paisaia behatuz zuhaitza marraztu. **Kolorea:** Oinarrizko koloreekin 2. mailako koloreak atera. UDAZKENA **Eskulanak/ teknika:** Giza gorputza Panpin artikulatua **Urtaroa:** Udazkena. Ipuin ilustratua: zuhaitz bat marraztu urtaro desberdinak kontuan izanda. **Gabon postalak eta apaingarriak :** Pop up teknika sinpleak eta 3D apaingarriak. **Artista eta bere artelanak:** *Courbet* El otoño. *Emily Carr* Big Raven, Forest, British Columbia.	**Marrazketa:** Lerro-marra kurbatu, zuzen eta ondulatuak. **Kolorea:** Kolore hotzak eta beroak. **Eskulanak / teknika** Proiektua: Erroma. **Urtaroa:** Neguko paisaia eta animaliak. Koadroa. Diorama. **Ihauteriak / mozorroa:** Joango garen gaiaren inguruan mozorroa egin. **Artista eta bere artelanak:** *Friedrich* Paisaje invernal. *Angelica Kauffman* Paisaje invernal, Retratos de invierno.	**Marrazketa:** Abstraktoa. Irudi geometrikoak erabiliz. **Kolorea:** Kolore gamak. Gurpil kromatikoa. **Eskulanak /teknika** Maketa: uraren zikloa. **Urtaroa:** Udaberriko murala. Lorategi bat irudikatu. **Artista eta bere artelanak:** *Claude Monet* Jardín de Giverny. Campo de amapolas. *Frida Kalho* Autorretrato con collar de flores. *Georgia O´Keeffe* Flower Series.

KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK		
LANA	Gelan eta taldean egindakoa Bakarkako lana	% 30
EDUKIAK	Azterketa/ariketen bidez erakusten duena Eguneroko lanaren balorazioa	% 50
JARRERA	Besteekiko Lanarekiko	% 20

ERLIJIOA	Asteko saioak: 1

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
Hauek dira LOMLOEk markatutakoak:

https://sites.google.com/educacion.navarra.es/curriculos-de-navarra-eu/etapak/lehen-hezkuntza

Erlijio katolikoaren irakaskuntzaren curriculuma eta Estatu espainiarrarekin hezkuntza arlorako lankidetza hitzarmenak sinatu dituzten gainerako konfesioen curriculumak elizaren hierarkiak eta erlijio bakoitzeko agintariek ezarriko dituzte, hurrenez hurren.

Erlijio katolikoaren irakaskuntzaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako gainerako arloetakoak egiten diren bezalaxe eginen da eta haiek dituzten ondorio berdinak izanen ditu. Erlijio konfesioen irakaskuntzaren ebaluazioak Estatuarekin izenpetutako lankidetza hitzarmenetan ezarritakoa beteko du.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
-Kreazioa. Ingurua zaindu -Zoriontasuna -Maitasuna -Eguberriak	-Familia eta lagunak -Barkamena -Aste Santua eta Pazkoa	-Maria, Jesusen Ama -Parrokia -Jairik handiena (Igandea)

EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK		
LANA	Gelan eta taldean egindakoa Bakarkako lana	% 40
EDUKIAK	Azterketa/ariketen bidez erakusten duena Eguneroko lanaren balorazioa	% 20
JARRERA	Besteekiko Lanarekiko	% 40

GORPUTZ HEZIKETA	Asteko saioak: 2, asteartetan.	Ikasturteko saioak: 33 saio bikoitz

HELBURU DIDAKTIKOAK

Hauek dira LOMLOEk markatutakoak:

1. Bizimodu aktiboa eta osasungarria hartzea eta, horretarako, jarduera fisiko, ludiko eta kirolekoetan erregulartasunez aritzea, osasun fisikoa, mentala eta soziala sustatzen duten portaerak hartzea, bai eta norberaren eta taldearen erantzukizun-neurriak ere mugimenduaren praktikan, ongizatea lortzen lagunduko duten jarduera fisiko sistematikoko ohiturak barneratzeko eta integratzeko.

2. Egokitzea gorputz-eskemari dagozkion elementuak, gaitasun fisikoak, pertzepzio-gaitasunak eta gaitasun motorrak eta koordinaziokoak, bai eta trebetasun eta abilezia motorrak ere, barne-logikarekin eta hainbat egoeratako helburuekin bat datozen pertzepzio-, erabaki- eta gauzatze-prozesuak aplikatuta, eguneroko bizitzako testuinguruetan helburu bat baino gehiago dituzten mugimendu proiektuen eta praktiken eskaerei erantzuteko.

3. Autoerregulazio- eta interakzio-prozesuak garatzea mugimendu-praktikaren esparruan, jarrera enpatikoz eta inklusiboz, trebetasun sozialak eta lankidetzako, errespetuko, talde-laneko eta kiroltasuneko jarrerak erabiliz, parte-hartzaileen desberdintasun etniko-kulturalak, sozialak, generokoak eta trebetasunekoak alde batera utzita, parte hartzen den espazioetan elkarbizitzan eta konpromiso etikoan laguntzeko.

4. Mugimenduaren kulturari dagozkion adierazpen ludikoak, fisikoak, kiroletakoak eta artistiko-espresiboak ezagutzea eta horiek praktikatzea, eta kultura tradizionalean eta garaikidean duten eragina eta ekarpen estetiko eta sortzaileak baloratzea, eguneroko bizitzan erabili ohi diren mugimendu egoeretan integratzeko.

5. Hainbat ingurune natural eta hiri-ingurune mugimenduaren praktikarako testuinguru gisa baloratzea, haiekin interakzioan aritzea eta ingurune horien kontserbazioak jasangarritasunaren ikuspegitik duen garrantzia ulertzea; jokoetan, jarduera fisikoetan eta kirol jardueretan erantzukizun indibidualeko neurriak hartzea, praktika efizientea eta ingurunearekiko errespetuzkoa izan dadin, eta ingurunea zaintzen eta hobetzen parte hartzeko.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
1.- Ikasturte hasiera Gorputz heziketako lekuak, materialak eta arauak ezagutzea. **2.- Gorputz eskema** Gorputzaren atal desberdinak ezagutu eta izendatzea, oinarrizko mugimenduak egitea, garbitasun ohiturak lantzea eta arnas hartzeko faseak identifikatzea. **3.-Lateralitatea** Lateralitatea aurkitu eta zehaztea, gorputz simetria barneratzea eta mugimendu ez-simetrikoetan ezkerra eta eskuina ezberdintzea. **4.-Desplazamenduak** Mugimenduen aukera desberdinak ezagutzea eta esperimentatzea jokoen bitartez erreakzio abiadura lantzea. **5.- Oreka** Oreka estatiko eta dinamikoak ziurtatzea.	**6.- Espazio eta denboraren pertzepzioa** Espazioan orientatzea, mugimendua distantzia eta denborara egokitzea. **7.- Erritmoa eta dantza** Gorputzaren mugimendua musikaren erritmora egokitu eta pausuen sekuetziazioa ikastea, inguruko dantzak interpretatzeko.. **8.- Lehen sorospenak** Larrialdien aurrean hartu beharreko hainbat jarrera ezagutzea eta praktikan jartzea rol playingaren bitartez. **9.- Begi-esku arteko koordinazioa** Esku-besoen koordinazio dinamikoa hobetzea: boteak, paseak, jaurtiketak eta kolpaketak. **10.- Gorputz adierazpena** Gorputzaren mugimenduak aztertzea eta espresibitatea ezagutzea.	**11.- Begi-oin arteko koordinazioa** Oinekin objektu bat erabiltzeko gaitasuna hobetzea: paseak egitea. **12.-Birak** Gorputzaren ardatz desberdinak kontuan hartuz birak egitea. Aurrerako itzulipurdia egitea. **13.- Herri kirolak** Gure kulturaren eta beste kulturen kirolak eta jolasak ezagutu eta praktikatu. **14.- Patio jolasak eta natur inguruneko ekintzak** Joko mota desberdinak ezagutzea eta disfrutatzea.
* Ikasturte osoan zehar, **gorputz jarrera, erlaxazioa eta jolas kooperatiboen** jarduerak burutuko dira. * Era berean, beroketa mota ezberdinak, luzaketak eta gorputzaren higienea eta zainketa landuko dira.		

EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK		
LANA	Gelan egindakoa, ahalegina eta parte hartzea Bakarkako lana	% 30
EDUKIAK	Azterketa/ariketen bidez erakusten duena Eguneroko lanaren balorazioa Progresioa	% 30
JARRERA	Besteekiko Lanarekiko Materialarekiko Arauekiko Higienea	% 40

INGELESA LH2	Asteko saioak: 5

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
1.Modu argian eta hizkuntza estandarrean adierazitako testu labur eta errazen esanahi orokorra eta informazio espezifiko eta aurreikusgarria ulertzea, hainbat estrategia erabiliz eta, beharrezkoa denean, laguntza mota desberdinak erabiliz, hizkuntza errepertorioa garatzeko eta eguneroko komunikaziobeharrei erantzuteko. 2. Testu errazak modu ulergarri eta egituratuan sortzea, plangintza edo konpentsazioa bezalako estrategiak erabiliz, berehalako premiekin lotutako mezu laburrak adierazteko eta eguneroko komunikazio helburuei erantzuteko. 3. Beste pertsona batzuekin interaktuatzea, eguneroko adierazpenak baliatuz, lankidetza estrategiak eta baliabide analogikoak eta digitalak erabiliz, kortesia arauak errespetatzen dituzten komunikazio trukeetan beren interesekoak diren berehalako beharrei erantzuteko. 4. Bitartekotza egitea aurreikus daitezkeen egoeretan, oinarrizko informazio erraza prozesatzeko eta transmititzeko estrategiak eta ezagutzak erabiliz, komunikazioa errazteko. 5. Hizkuntzen arteko hizkuntza errepertorio pertsonalak ezagutzea eta erabiltzea, haien funtzionamenduari buruz hausnartzea eta norberaren estrategiak eta ezagutzak identifikatzea, egoera ezagunetan komunikazio behar zehatzei ematen zaien erantzuna hobetzeko.. 6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna balioestea eta errespetatzea, eta hizkuntzen eta kulturen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatzea, kulturarteko egoerak kudeatzen ikasteko.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
Errutinak: asteko egunak, hilabeteak, zenbakiak, eguraldia, urtaroa, nola sentitzen zara? **Egiturak:** What day/date/month/season is today? What's the weather like in Garralda? How do you feel today? Why?		
1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
HIZTEGIA: **EMOZIOAK:** happy, sad, excited, sleepy, tired, bored… **ESKOLAKO MATERIALA:** computer, crayon, pen, pencil, pencil case, rubber, ruler, sharpener, bin, cupboard, desk, shelf. **HOUSE**:	**HIZTEGIA:** **JANARIA :** ice cream, cake, burgers, milkshake, onion, cheese, apple, pineapple, tuna, peppers, banana, milk, juice, water… **ARROPAK:** dress, jacket, jeans, skirt, sweater, trainers, trousers, t-shirt, hat, shoes…	**HIZTEGIA:** **SPORTS:** Hop, climb, fly a kite, jump, ride a bike, play basketball, play chess, play hopscotch… climb a tree, do yoga, go for a walk, play basketball, play table tennis, play volleyball, sail boat, and swim in the lake. **ADJEKTIBOAK (basics):**

attic, bathroom, bedroom, hall, kitchen, living room. Cooker, fridge,shower, sofa, bed… **EGITURAK:** Can I go to…? I can… I can´t Yes, I can No, I can´t Where is the (classroom„„) ? It is (in front of..) There is a (bedroom) There are two (bathrooms) Is there a (garage?) Yes, there is/No, there is't Is (the bed) in your (bedroom)? Yes, it is/No, it isn't PREPOSITIONS: behind, between, in front of, next to. It is on… He is behind Marta…	**EGITURAK:** I like I don´t like I have got You have got She has got He has got Have you got..? Yes, you have /No, you haven't Has she got…? Yes, she has / No, she hasn't I'm wearing (blue shoes) I'm not wearing (a hat) SUBJECT PRONOUNS I You He/She/It We You They	Clean, new, dirty, old. Seasons. **Egiturak:** I want to… I don't want to… Do you want to…? Yes I do/ No, I don't Can you (swim)? Yes, I can / No, I can´t
READINGS + WRITINGS + LISTENINGS + PROJECTS		

EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK		
LANA	Gelan eta taldean egindakoa Bakarkako lana	% 40
EDUKIAK	Azterketa/ariketen bidez erakusten duena Eguneroko lanaren balorazioa	% 20
JARRERA	Besteekiko Lanarekiko	% 40

Musika	**Asteko saioak: 2**

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
1. Hartze aktiboaren bidez, hainbat genero, estilo, garai eta kulturatako proposamen artistikoak ezagutzea, jakin-mina eta aniztasunarekiko errespetua garatzeko. 2. Ikertzea adierazpen kultural eta artistikoei eta haien testuinguruei buruz, eta, horretarako, hainbat kanal, bitarteko eta teknika erabiltzea, haietaz gozatzeko, haien balioa ulertzeko eta norberaren sentsibilitate artistikoa garatzen hasteko. 3. Ideiak, sentimenduak eta emozioak modu sortzailean adieraztea eta komunikatzea, eta soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta baliabide digitalen aukerekin esperimentatzea nork bere obrak sortzeko. 4. Bakarkako nahiz taldeko ekoizpen kulturalak eta artistikoak diseinatzen, prestatzen eta zabaltzen laguntzea, eta, hori egitean, prozesuaren balioa nabarmentzea eta zenbait eginkizun beren gain hartzea azken emaitza lortzeko, garatzeko bai sormena bai egiletzaren kontzeptua, baita taldeko kide izatearen sentipena ere.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
1. INTERPRETAZIOA: • Ahotsa: adierazpenerako baliabideak zein arnasketa. • Kantua: haurrena, AB forma musikala, estrofa errepika. • Musika elementua (tempoa) zein erritmo ostinatoak. • Instrumentuak: Gorputza, perkusio txikia, sortutako instrumentua, intonazio zehaztugabeko perkusioa (zura, metala, partxea eta abar). • Musika hizkuntza: oinarrizko erritmoak (pultsua, azentua (bitarra)), erritmoaren ohiko grafiak (zuria, beltza, kortxeak zein beltzeko isilunea). • Melodiaren ohiko grafiak: pentagramaenea (do, re, mi, fa, sol, la, si eta do´).	**2. DANTZA ETA MUGIMENDUA:** • Gorputz adierazpena: koordinazioa, arnasketa, lekualdaketak. • Dantza/koreografia errazak: Orientazioa espazioan eta denboran; lateralitatea, bikoteak, zirkuluak.	**3. ENTZUTEA:** • Forma errazak: AA, AB. • Musika jarduera eta lanbideak: musikagilea eta zuzendaria. • Entzunaldietako portaera arauak.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK		
LANA	Gelan eta taldean egindakoa Bakarkako lana (gelan eta etxean (etxeko lana))	% 30
EDUKIAK	Azterketa/jarduera ezberdinen bidez erakusten duena Eguneroko lanaren balorazioa	% 30
JARRERA	Besteekiko Lanarekiko	% 40

	Parte-hartzea.	

ERREKUPERAZIO IRIZPIDEAK
Hurrengo mailara ikasgairen bat gainditu gabe pasatzen badira, ikasleei berreskuratzeko plan bat egingo zaie HLUkoen laguntzarekin.